

Haur eta gazteentzako emanaldi-baldintzak arte eszenikoetan

Proposamen zerrenda haur eta gazteek ikuskizunak modurik egokienean jaso ditzaten emanaldien baldintzak hobetuz.

1.- Ikusle kopurua mugatu

Familiantzako ikuskizunetan.

Soilik besaulki-patioa erabiltzea aholkatzen da

Eskoletarako emanaldietan

Eskolaurrekoa (6 hilabe eta 3 urte bitartekoak) 100 ikusle gehienez jota.

Haur hezkuntza (3tik 6ra bitarte): 200 ikusle tope.

Lehen Hezkuntza (7tik 11 urtera): Ikusle kopuru egokiena 300ekoa litzateke, 400era iristea zilegi bada ere.

Bigarren Hezkuntza eta Batxillergoa: Aurrekoan bezala, ikusle kopuru egokiena 300ekoa litzateke, 400era iristea zilegi bada ere.

2.- Gomendatutako adin-mugaren berri eman eta eduki lagungarria

Haur eta gazteak antzokietara eramaten dituzten heldu-arduradunek aukeraketa zentzuzkoago bat egin dezaten, komeni da ikusleen kopuru egokiaren edo eta gomendatutako adin-mugaren berri ematea. Hala nola, lagungarri izan daitekeen eduki pedagogikoa eskuragarri izatea.

Antzerki taldeei dagokie:

- Argi adierazi egiten duten publizitatean ikusle kopuru egokia eta adin-muga zein den.
- Eduki pedagogikoa eskuragarri izan.
- Ikusle eta artisten arteko elkar-trukea ahalbideratu emanaldiaren ondoren.

Antzokiei dagokie:

- Adin-mugen eta ikusle kopuruaren inguruko informazioa hedatu eta errespetatu, batez ere eskoletarako emanaldietan.
- Antzerki taldeei eskatu irakasleentzako lagungarri den eduki pedagogikoa.
- Bestelako gaitasuna duten ikusleei laguntza eskeini, eta bereziki, inklusioa ahalbideratu behar-besteko neurriekin.

3.- Ikusleen harrera, kokapen eta ulergarritasun baldintza egokienak bermatu

Harrera eta kokapena

Ikusle txikienek eta haien sendikoek dituzten beharrei erantzunik aproposena eskaintze aldera, antzokietako langileekin aurrez lan zerbitzurik egokiena emateko.

Ulergarritasuna

Ikusleek antzezlanaren jarraipena ahalik eta erosoan egin dezatela lortu, ongi ikusi eta egoki entzun dezaten. Beharrezkoa balitz bozgoragailuak erabiliaz esperientzia emankorragoa izan dadin.

Inklusioa eta aniztasunari begirunea

Bestelako gaitasunak dituen ikuslegoaren beharrak aintzat hartu: hobeto ikusi eta entzuteko baliabideak eskeini, irisgarritasuna eta erosotasuna bermatu; talde-integrazioa oztopatu dezakeen oro saihestu.

4.- Antzerkia-eskola eta antzerkia-familia harremanak sustatu, eta ikusleen formakuntzari bultzada eman.

Antzerki eta ikusleen artean "bitartekari" lana egingo lukeen arduraduna ezarri. Haren betebeharrak liriateke:

- Ikusle gazteenen beharrak antzeman.
- Sentiberatasun artistikoa hezitzeko proposamenak egin.
- Antzerkia eta eskolaren, edo eta antzerki eta familiaren arteko zubiak sendotu.
- Ikusleen formakuntza bultzatzeko egitasmoak diseinatu eta garatu.
- Ekimen osagarriak proposatu.
- Ikusle ezberdinentzako adin-muga egokienaren berri eman.
- Eskoletarako emanaldietan ikusle kopuruaren mugen berri eman.
- Aniztasuna eta inklusioa bermatu.

Gomendagarria da esparru bereko antzoki, jaialdi, azoka eta antzerki taldeen arteko lankidetzak, elkarlanean, ekimen ezberdinak garatze aldera.

5.- Programazio egonkorren sustapen eta ikusgaitasuna sendotzeko baliabideak gehitu.

Haur eta gazte ikusleak gizartearen parte dira eta, Konstituzioak ezarritakoaren arabera, kultura eskuragarri izatea bermatuta izan behar dute. Programazio egonkorrek sendotzeko baliabideak gehitzea ezinbestekoa da baldin eta kulturaren murgiltzeko ohitura bultzatu nahi badugu. Horretarako programatzeko bi bide leudeke:

Familiarentzako programazioa: Kultura eta aisialdirako eskaintzen baitan, arte eszenikoa nahitaezko aukeretako bat da, estimu eta atxikimendua ahalbidetzen duelako esperientzia aberasgarri baten bidez.

Eskolentzako programazioa: Arte eta Kulturara iristeko berme demokratikoa gauzatzeko.

Bai batean zein bestean baliabide urriak dituzten pertsonen irisgarritasuna erreztu behar da, behar sozial ezberdinei erantzuteko politika egokiak inplementatuz.

6.- Adin guztietakoei eskaintza bermatu.

Adin guztietakoek Arte Eszenikoez gozatzeko aukera izan behar dute, orain baina, programazioak sendotu behar dira bereziki ikuslego hauentzako:

Ikusle gazteak (14-18 urte bitartekoak)

Eurentzako interesgarriak izan daitezkeen gaiak jorratzen dituzten ikuskizunak programatu, hezkuntza-sistemak derrigorrezko jotako tituluez haratago.

Hirietan egiten den ikuskizun eskaintza gazteenei helarazteko ekimenak garatu: ikusle gazteenen konplizitatea eta protagonismoa bultzatuz.

Artistekin solasaldiak, enkontruak eta tailerrak egin.

Prezio egokienak ezarri, esaterako, abonua eta deskontuak bultzatuz.

Berriazko ordutegiak adostu eta ezarri.

Lehen haurtzaroa (6 hilabete- 3 urte bitartekoak)

Espreski eurei zuzendutako jaialdi eta espazioak bultzatu.

Bai taldeek eta baita antzokiek ere kontu handiz eta oso argi helarazi behar dute adin egokiena zein den: “Urtebetetik gorakoentzat...”, “Bi urtetik gorakoentzat...”, “2 eta 4 urte bitartekoentzat”...

Formakuntza tailerrak eta bestelako ekimen osagarriak eskaini.

Artisten eta ikusleen arteko enkontruak ahalbidetu.

Emanaldi zehatzen baldintzak zaindu:

Beroki, aulki, haur-kotxe eta gainontzekoak uzteko gunea.

Komunetan haur-oihalak aldatzeko beharrezkoak jarri.

Espazioa modurik egokienean hornitu: kuxinak, zoru bereziak, berariazko harmailak...

ZER DA TE VEO?

Espainia osoko arte eszenikoen baitan, haur eta gazte zuzendutako talde profesionalak osatutako elkarte da. 1996. urtean sortu zen sektorearen beharrei erantzuna emateko, erreferentzia marko bat sortu eta, batez ere, sorkuntza, ekoizpena eta banaketa hobetzeko ekimen eta egitasmoak garatzeko.

TE VEOren helburu nagusiak honako hauek dira:

Haur eta gazteei, edo eta ikuslego familiarrari, zuzendutako jarduera oro sendotzeko, promozio, banaketa eta bestelako ekimenak bultzatu.

Artea eta kultura haur eta gazteei helarazteko bideak erraztu.

Esperientzien elkar-trukea: elkartearen parte diren profesionalen ekimenen garapenerako bide berriak ahalbidetu.

Aitortza sozial eta kulturala: haur eta gazteei zuzendutako Arte Eszenikoen alorra jorratzen duten erakunde nahiz pertsonen egiten duten lana azpimarratu.

Ikerketa eta berrikuntza: batetik, lengoia artistiko anitzetan sakondu eta, horrez gain, banaketa, programazio eta ekoizpen molde berrien garapena sustatu.